

Ondarenet sortu dute, ondare digitala zaintzeko

Eusko Jaurlaritzak jarri du abian proiektua, eta ondare digitala babestea eta hedatzea ahalbidetu nahi du

Erredakzioa. Donostia

Mundu osoan bibliografia euskarrien inguruan ematen ari diren aldaketen harira, informazio sistema bateratuan oinarritutako proiektua jarri du martxan Jaurlaritzak, Ondareneten bitartez. Helburua euskal ondare digitala osa dezaketen baliabide digitalak lortzea da.

Horrela, web ingurunean sortutako ondare digitala berreskuratu eta babesteko asmoz beste herrialde batzuek abian jarritako antzeko ekimenei jarraitzen die Ondarenetek.

Proiektu hori 2010. urtean hiritar guztiek eskuratzeko moduan izango da. Gutxi gorabehera, sei milioi dokumentuz osatutako liburutegi digitala izango da. Bat dator Europako Batasunaren estrategiarekin.